

BANDOA

INFORMAZIO ABISUA KALE-GARBIKETA ETA ZABOR-BILKETAZ

Joan den 2011-01 15ean sartu zen indarrean Kale Garbiketa eta Zabor Bilketako Udal Ordenantza berria. Araudiak (ikus daiteke 2010eko abenduaren 24ko 145 zk. duen ALHAOn eta www.laudiokoudala.net atarian) zerbitzu horiek hobetu nahi ditu, ezinbestekoa den hiritarren laguntzaz, gure udalerria eta, batez ere, kale, parke eta gainerako espazio publikoak atseginoak izan eta garbiago egon daitezzen.

Giza-lege erregela eta zabor-bilketa zerbitzua erabiltzeko arauak argiak izan arren ere, maiztasun gehiegiz, ikus daitezke espaloitan lagatako zaborren poltsaren batzuk, batez ere, buzoien eta kontenedoreen alboan, bai utzikeriagatik, mota eta neurri desegokiko ontziak erabiltzeagatik edo erabilgarri dauden elementuen erabilera okerragatik, horrek eragozten dituela eta hala behartzen dituela osteko erabiltzaileak ere.

Herriko Etxe honek eskertzen du hiritarren laguntza hiriaren garbitasuna eta hondakinen bilketa bereziaren funtzionamendua hobetzeko denon baterako helburua lortzeko. Aldi berean, goian azaldutakoaren ondorioz eta erantzukizunez jokatzuz, iragartzen dizuegu Udaltzaingoak berariazko zaintza eta jagoletza egin duela kale-garbiketaz eta buzoien eta kontenedoreen erabilera zuzenaz, Ordenantza honen arau-hauste kasuren bat bada, bertan jasota dakarren zigor-isunen araubidea aplikatzeko.

Laudion, 2011ko otsailaren 4a

Alkatea,

-Jon Karla Menoio Llano-